2018

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

JARDUERA MEMORIA

AURKIBIDEA

0. Aurkezpena
1. Programazioa
2. Erabiltzaileak
3. Elkarlana
4. Komunikazioa
5. 2017/18 ikasturteko ebaluazioa
6. Urteko laburpena

0. AURKEZPENA

Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxea (hemendik aurrera OEE) euskarazko aisialdiari eta kulturgintzari lotutako topagunea da; etorkizuneko Gasteizko Kafe Antzokia egitasmoaren zutabeetako bat. Euskararen erabilera sustatzea helburu duen gunea.

Euskara ardatz, euskarazko adierazpide artistiko ororen erakusleiho izateko bokazioarekin jaio zen 2014ko urrian. Euskaraz bizi eta euskarara hurbildu nahi duten herritar, euskal eragile, kulturgile eta kulturzaleen etxea izan nahi du. Erreferentziazko topagunea, sorgunea eta formaziorako gunea. Euskararentzako arnasgune berri bat da. Euskaratik abiatuta, gainontzeko hizkuntza eta kulturei ateak parez-pare zabaldu nahi dizkie.

2018ko urrian OEEk lau urte bete zituen, eta Lazarraga Kultur Elkarteak (hemendik aurrera LKE), Gasteizko Kafe Antzokiaren proiektuaren sustatzaile denak, OEEren programazioa bere osotasunean kudeatzen jarraitu zuen.

Memoria honek LKEk 2018. urtean OEEn burututako lanak azaltzea du helburu. Hau da urteak zenbakietan eman duena:

7.004 ERABILTZAILE	124 JARDUERA
36 ERAGILE	16 JARDUERA MOTA
1.608 JARRAITZAILE FACEBOOKEN	1.912 JARRAITZAILE TWITTERREN
486 JARRAITZAILE INSTAGRAMEN	16.299 WEB ERABILTZAILE

1.- PROGRAMAZIOA

2018. urteko OEEko programazioa jarraian zehaztutako bost helburu nagusi hauetan oinarritu da:

	HELBURUAK	ESTRATEGIAK	JARDUERA MOTA
1	EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU	1.1.- Erabilera espazio eta jarduerak sortu	1.1.1.- Heziketa (tailerrak, ikastaroak); ekitaldi kulturalak; Diru-laguntzak eta bestelakoak
		1.2.- Ekintza parte-hartzaileak antolatu	1.2.1.- Diru-laguntzak (txapelketak) eta Bestelakoak (topaketak, jardunaldiak, bilerak, bisitak, dastaketak)
		1.3.- Hezkuntza komunitatearekin ekintzak antolatu	1.3.1.-Heziketa (ikastaroak, tailerrak) Bestelakoak (bisitak, jardunaldiak,bilerak)
2	EUSKARAZKO SORKUNTZA SUSPERTU	2.1.- Belaunaldi ezberdinetako artisten arteko zubilanak egin	2.1.1.- Heziketa (tailerrak, laborategiak), ekitaldi kulturalak (Bertso Saioak) eta bestelakoak (topaketak, jardunaldiak)
		2.2.- Sorkuntzarako tresnak eta baliabideak eskaini	2.2.1.- Heziketa (tailerrak, laborategiak, ikastaroak), eta Diru-laguntzak (bekak, sariak, txapelketak)
3	EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN ERAGILEEN SAREA TRINKOTU	3.1.- Euskal Herriko antzerako gune/eragileekin harremanak izan	3.1.1.- Bestelakoak (topaketak, jardunaldiak eta bilerak)
		3.2.- Gasteizko eragileei proposamenak egin	3.2.1.- Diru-laguntzak (txapelketak) ; Bestelakoak (topaketak, jardunaldiak, bilerak)
4	KULTURA ERREFERENTE BILAKATU	4.1.- Kalitatezko ikuskizunak eskaintzea	4.1.1.- Ekitaldi kulturalak (kontzertuak, antzerkia, hitzaldiak) eta Bestelakoak (erakusketak)
		4.2.- Euskal Herrian euskaraz sortutako lanen erakuslehio izatea	4.2.1.- Ekitaldi kulturalak (kontzertuak, Antzerkia...) eta Bestelakoak (erakusketak)
		4.3.- Kultur eragileekin zubiak eraiki	4.3.1.- Ekitaldi kulturalak (kontzertuak, Antzerkia...) eta Bestelakoak (erakusketak)
5	EUSKARA ETA HIZKUNTZAK ANIZTASUNEAN AZTERTU	5.1.- Arlo akademikoak jorratu	5.1.1.- Heziketa (tailerrak, ikastaroak, laborategiak); Diru-laguntzak (bekak, sariak) , Ekitaldi kulturalak (hitzaldiak). Bestelakoak
		5.2.- Normalizazioan ibilitako eragileen bilakaera eta erronkak ezagutu	5.2.1.- Ekitaldi Kulturalak (hitzaldiak), Bestelakoak (topaketak, jardunaldiak)

2018. urtean 124 jarduera ezberdin antolatu ziren OEEn. Aurreko urtearekin alderatuz 22 jarduera gutxiago izan ziren, hots, %15ko murrizketa suposatu zuen. Beherakada horren arrazoi nagusia 2017/18 ikasturtean egindako ebaluazioaren ondorioz jarduera kopurua mugatzeko erabakian kokatu behar da, eta LKEk Oihanederreko programazioa garatzeko dituen giza baliabide eta baliabide ekonomikoekin du zerikusia.

Jarduera asko eragile ezberdinekin egindako elkarlanaren emaitza izan ziren, ia %68 (laugarren atalean elkarlanaren nondik norakoak azalduko dira).

Ekitaldi hauez gain, eragile batzuek bestelako jarduerak antolatu zituztela aipatu behar da, halere, jarduera hauen datu zehatzak ez dira lortu eta horregatik ez dira kontuan izan.



Goiko grafikoan ikus daitekeen moduan, OEEren irizpideen arabera bereiztutako 16 jarduera mota ezberdin burutu ziren denbora tarte honetan:

Antzezlanak	Aurkezpenak	Bertso-saioak	Dantza-saioak
Elkarrizketak	Erakusketak	Familia jarduerak	Hitzaldiak
Ikastaroak	Ikus-entzunezkoak	Ikuskizunak	Inaugurazioak
Jardunaldiak	Kontzertuak	Lehiaketak	Mahai-inguruak

2017. urtean bezala, ikus-entzunezkoak nagusi izan ziren, zehazki, eskaintza osoaren %28 izan ziren.

Programazioaren 5 helburu nagusiei erreparatuz gero, kultur erreferente bilakatzeko asmoa zutenak nagusi izan ziren. Beste helburuen artean oreka egon zen.



Ondoren urteak eman zituen datu kuantitatibo nagusiak zehaztuko dira:

1.-Euskararen erabilera sustatu

16	%12,90	1.995	%28,48
EKITALDI	JARDUERA GUZTIAREN	ERABILTZAILE	ERABILTZAILE GUZTIEN

2.- Euskarazko sorkuntza suspertu

16	%12,90	598	%8,54
EKITALDI	JARDUERA GUZTIAREN	ERABILTZAILE	ERABILTZAILE GUZTIEN

3.- Euskararen normalizazioan aritzen diren eragileen sarea trinkotu

22	%17,74	834	%11,91
EKITALDI	JARDUERA GUZTIAREN	ERABILTZAILE	ERABILTZAILE GUZTIEN

4.-Kultura erreferente bilakatu

53	%42,74	2.882	%41,15
EKITALDI	JARDUERA GUZTIAREN	ERABILTZAILE	ERABILTZAILE GUZTIEN

5.- Euskara eta hizkuntza-aniztasuna aztertu

17	%13,71	695	%9,92
EKITALDI	JARDUERA GUZTIAREN	ERABILTZAILE	ERABILTZAILE GUZTIEN

Hilabetero antolatutako ekimen kopuruari erreparatuz gero, udako hilabeetan eman zen beherakada handiena. Aurreko urteetan bezala ekaina-iraila bitartean programatutako saio kopurua baxua izan zen. Ikasturtean zehar, abenduan izan ezik, kopurua orekatuagoa izan zen, eta gehienbat lehenengo 5 hilabeteetan.



Eranskinetan 2018. urtean Oihanederren antolatu ziren jarduera guztien zerrenda zehatza dago.

2.- ERABILTZAILEAK

2018an OEEn antolatu ziren ekitaldietara 7.004 lagun etorri ziren; batez beste 56 parte-hartzaile jarduera bakoitzeko. Aurreko urteko datuekin alderatuz, beherakada nabarmena egon zela azpimarratu behar da. Horren arrazoi nagusiena erakusketa kopuruan datza, 2018. urtean aurreko urtearekin alderatuz erakusketa bakarra antolatu baitzen: *Gasteiztarrak Arraun the world*.

Halere, erakusketak alde batera utzita, aurreko urteko (2017) saio bakoitzeko bataz bestekoa 2018an hobetu egin zela nabarmendu behar da. Beheko grafikoak azken 4 urteetan izandako bilakera islatzen du. "Saio bakoitzeko 1" kontzeptupean bataz besteko totalak adierazita daude, erakusketak barne; "saio bakoitzeko 2"-rekin aldiz, erakusketak alboratuz, izandako erabiltzaile kopurua erakusten da. Grafikoan ondo ikusten da erabiltzaile kopuru orokorrean erakusketek duten pisu garrantzitsua.



Bestetik, programazioaren 5 helburuek izan zuten erabiltzaile kopuruari erreparatuz gero, aurreko urtekoa baino orekatuagoa izan zen. Halere, oraindik alde nabarmenak izan ziren, batzuen eta besteen artean.



Laugarren helburuak, hots, *Kultura erreferente bilakatzea*k izan zuen erabiltzaile kopuru altuena: %41, hain zuzen ere. Jarduera kopuru altuena izan zuen helburu honek, eta horren ondorioz erabiltzaile kopuru altuena izatea ere ez da harritzekoa.

Beste helburuen publiko-kopuru hurrenkera zein izan zen argi islatzen da grafikoan. Adierazgarria da, 2018. urtean *Euskararen erabilera sustatzeko* asmoarekin antolatutako jarduerek izandako erabiltzaile kopuru handia: %28. *Gasteiztarrak Arraun The World* ekimena hemen kokatzen da eta horren bueltan antolatzen den erakusketak inoiz baino ikusle gehiago izan zituen, 1.202, hain zuzen ere.

Euskararen erabilera sustatzera zuzendutako jarduerek erabiltzaile guztien ia %12 izan zuten.

Azkenik, beste bi helburuek antzeko publiko kopurua izan zuten. Alde batetik jarduera kopurua askoz baxuagoa izan zelako, eta bestetik, arlo honetako ekintza motak ez zeudelako jende ugariri zuzenduak.

Hurrengo grafikoan ekitaldi mota bakoitzak izandako erabiltzaile-ikusle kopurua islatzen da.

Erabiltzaileak ekitaldi mota bakoitzaren arabera



Aurreko urteetako datuekin alderatuz gero, aldaketa garrantzitsu bat ikusten da, lehenengo aldiz erakusketak ez ziren izan publiko gehien erakarri zuten jarduerak. 2018. urtean ekitaldi mota jendetsuena ikus-entzunekoena izan zen, %20 hartu zuen. Ondoren, kontzertuak eta erakusketak daude, biak %17ko parte-hartzearekin.

Erabiltzaileen adinari dagokionez, iraganeko tendentzia mantendu zen. Irudian ikus daitekeen moduan 35-60 urte bitarteko erabiltzaileak izan ziren nagusi. Oihanederrera hurbildu ziren erabiltzaileen erdia adin tarte horretakoa izan zen.

Erabiltzaileak adinaren arabera



*Lazarraga Kultur Elkarteak antolatu zituen jardueretan oinarrituta

Bigarren adin talde esanguratsuena 15 eta 34 urtekoa izan zen, publikoaren %28 hartu zuen. Hirugarrena 3 eta 14 urte bitartekoa, %13 izan zuen. 2017ko datuekin erkatuz gero, bi talde hauen presentzia handitu egin zela azpimarratu behar da, 7 eta 3 puntu, hurrenez hurren.

Azkenik, generoaren ikuspegitik, aurreko urteetan bezalal emakumeak nagusi izan ziren. Azpiko grafikoan ikus daitekeenez, erabiltzaileen %60 emakumeak izan ziren. Aurreko urteekin parekatuz gero, hauen presentzia apur bat handitu zen.



*Lazarraga Kultur Elkarteak antolatu zituen jardueretan oinarrituta

3.- ELKARLANA

Aurreko urteetan bezala, 2018an ere, Oihaneder Euskararen Etxeko jarduna gidatzen duten pausoak erabakitzeko momentuan **norekin elkarlanean aritu** izan zen irizpide nagusienetako bat. OEEko lantaldeak hasieratik bertatik argi izan du Gasteizko eta Arabako eragile eta sortzaile euskaltzaleekin egin behar zuela lan; elkarlana sustatu behar zuela, alegia, eta irizpide hori hartu du hainbat lan ildo jorratzerakoan.

Herrialdean euskararen alde egindako lanak ondo erakusten du elkarlana sustatzea, lan-sareak sortzea eta elkarrekintza bultzatzea direla tresna eraginkorrenak Gasteizko eta Arabako euskaldunak euskararekiko aktibo bilakatzeko.

Gasteizko eta Arabako eragile euskaltzaleekin lan-sareak, parte-hartzea eta elkarlana bideratuko dituzten estrategiak eta jarduerak lantzeko, honako irizpide nagusi hauetan oinarritu zen OEE:

- Gasteizko eta Arabako eragile euskaltzaleen identifikazioa egin eta hauekin harremanetan jarri
- Denon arteko elkarlanerako aukerak identifikatu eta proposamenak egin
- Eragile euskaltzale bakoitzarentzat egoki izan daitekeen lankidetza hausnartu eta proposatu
- Eragile horiek proposatuko dituzten jarduerak kontuan hartu eta lan-sareak sortzeko bideratu

Aurreko urteetan egin bezala, iaz, OEE eragile euskaltzaleentzat jarduera gune erreferentzial bilakatzeko bidean, hainbat proposamen egin zitzaizkien eragile hauei beren ekintzak antolatzeko orduan kontuan har zezaten aberasgarri dela arnasgune funtzional honetan, eta elkarlanean, euskararen inguruko jarduerak antolatzea. Horrela ulertu zuten hainbat eragile eta sortzailek eta oso emankorrak izan dira jorratutako elkarlan proposamenak.

Guztira 42 eragile izan ziren gurekin elkarlanean aritu zirenak (2017. urtearekin alderatuz, hiru eragile gutxiago - ia %7ko jaitsiera -:

→ Adurtza Dantza Taldea
→ AEK Euskaltegia
→ Aitzina jaialdia (AEFAT elkartea)
→ ALEA
→ Algara Dantza Taldea
→ Arabako Bertsozale Elkartea
→ Arabako Foru Aldundia
→ Bai & By
→ Barrutia ikastola
→ CEAR
→ Euskaraldia Gasteiz
→ Filmazpit
→ Garabide
→ Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzua
→ Gasteizko Udaleko Folklore Eskola
→ Gasteizko Udaleko Gazteria Saila
→ Gauekoak
→ Gaztefilm (Zinhezba)
→ GEU
→ Goian
→ Hegoalde Euskaltegia
→ HIGA
→ IKA Euskaltegia
→ Indarra Dantza Taldea
→ Irakurle Talde Feministak
→ Jakin
→ Jare Dantza Taldea
→ Jazzaharrean
→ Lakuabizkarra ikastetxea
→ Mintzola Ahozko Lantegia
→ OEE / LKE
→ Parasite Kolektiboa
→ Poetak Maiatzean (Hunkitu Arte elkartea)
→ Sarburu Elkartea
→ Toki Eder ikastola
→ Topagunea
→ Udaberria euskaltegia
→ UEU
→ Unesko Katedra
→ UPV/EHU
→ Zineleku (Kalakalab S.L.)
→ Zizta Euskara Taldea

Hasieran aipatu bezala, hainbat eragilek Oihanederren beren kabuz antolatutako jardueren inguruko informazioa ez ziren jaso, eta ondorioz ez dira kontuan hartu zerrenda honetan.

Jardueren guztien %31 OEE/LKE-k bakarrik antolatutakoak izan ziren (beste inorekin elkarlanean aritu gabe). Gainontzekoak euskalgintzako, kulturgintzako eta hezkuntzako eragile ezberdinekin garatutako elkarlanaren emaitza izan ziren %69, hain zuzen ere. Aurreko urteetan egondako joera areagotu egin zen, hots, inoiz baino elkarlan maila altuena eman zen 2018. urtean.



Jarduera ezberdinen antolakuntzan, komunikazioan eta produkzioan egindako elkarlanak izan ziren; mota ezberdinetako elkarlanak, alegia. Batzuetan hasierako ideiatik garatutako elkarlana, beste zenbaitetan lekuaren kudeaketaren ardurari eta komunikazio laguntzari lotutakoa. Normala denez euskalgintzako taldeekin antolatutako jarduerak gehiago izan dira, baina kultura munduko elkarteekin eta hezkuntza arloko eragileekin ere, gero eta gehiago dira antolatutako ekitaldi eta saioak.

Amaitzeko esan, Euskal Herri osotik elkarlanerako hamaika proposamen jaso zirela, zehatz esanda 2018.urtean 61 izan ziren OEEra iritsi ziren proposamenak (aurreko urtean baino 12 gehiago, %24,5eko igoera), eta ia-erdia egin ahal izan genituen. Batzuetan norbanakoak izan ziren beren jarduerak proposatu zituztenak, beste batzuetan elkarte edo talde ezberdinak, eta zenbaitetan baita erakunde ofizialak edo hauek sustatutako programak ere.

4.- KOMUNIKAZIOA

Aurreko urteetan bezala, OEEn antolatutako programazioaren berri emateko eta proiektuaren beraren zabalpena egiteko Komunikazio Plan Estrategikoa oinarritzat hartu zen. Halere, beharren eta egoera ezberdinen arabera egokitu egin zen 2018 urtean zehar.

Euskarri eta kanal korporatiboak

Oihanederren webguneak 16.299 erabiltzaile eta 59.582 bisita izan zituen 2018an zehar. Azpiko grafikoan ikusi daitekeen bezala, aurreko urteetako datuak hobetu ziren.



Antolatutako ekimenak webgunean argitaratzearekin batera, sare sozialetatik ere zabaldu ziren. Sare sozialetako erabiltzaile kopuruei dagokienez Facebookeko orrialdeak 1.608 jarraitzailerekin bukatu zuen urtea, Twitterren 1.912rekin, Instagramen 486rekin eta Telegram kanalean 36rekin. Urtez urte, jarraitzaile kopurua doa.



Oihanederrek Youtuben duen kanala elikatzen jarraitu zen: *Hitz Adina Mintzo* zikloko aurkezpenen bideoak, ikastaro eta hitzaldi desberdinenak, *Gazte Sortegiak* ekimeneko promozio-bideoak...

Bestalde, 525 lagunek jaso zuten informazio orokorraren buletin elektronikoa euskaraz, eta 39k gazteleraz. Euskalgintzako 13 eragileri ere bidali zitzaien, baita Gasteizko euskaltegiei ere. Guztira 600 lagun inguru jaso zuten Oihanederren buletina hamabostean behin. Iazko datuekin alderatuz, %60ko jeitsiera suposatzen du. Horren arrazoi nagusia 2018 urtean indarrean sartu zen Datuen babeserako Europako lege berria izan zen. Horren ondorioz, aldez aurretik zeuden harpidetza asko galdu ziren.

Euskarri grafikoak

Guztira 3.660 kartel +/- eta 26.000 eskuorri +/- inprimatu ziren 2018an. Hauei digitalki zabaltzeko diseinatutako kartelak gehitu behar zaizkie. Aurreko urteekin alderatuz, kopuru xumeagoak izan ziren, ingurugiro eta bestelako irizpideak kontuan hartu zirelako.

Formatu handian, beharrezkoa izan zenean formatu txikiko diseinuan oinarritutako euskarriak sortu ziren: erakusketen biniloak, panelak, banderolak, ... esaterako.

Euskarri multimediei dagokienez, lehen azaldu bezala hainbat ekintza (Hitz Adina Mintzo) bideoan grabatu eta Oihanederren Youtube kanalera igo ziren. Beste batzuk Oihanederrek dituen bestelako kanaletatik elkarbanatu ziren, *Gazte Sortegiak* kasu. Ekintza askotan *Facebook live* proiekzioak egin ziren, tresna honek eskaintzen duen berehalakotasuna probestuz, eta ekimenen azken ordukoak on-line komunitateari hurbilduz.

Komunikabideak

Astelehenero lehen orduan asteko agendaren berri ematen duen buletina bidali zen komunikabideetara (189 kontaktutara). Informazio orokorraz gain, elkarrizketak errazte aldera, ekintza bakoitzean parte hartuko zuen artista, gonbidatu, hizlari edo antolatzaileekin harremanetan jartzeko bidea eskaini zen.

Hainbat ekintzaren zabalpena sustatzeko prentsa-oharrak bidali ziren ekintza baino 2-3 egun lehenago. Bertan, astelehenetako buletinean bezala, ekintzetako protagonistekin harremanetan jartzeko kontaktuak erraztu ziren.

Prentsa deialdiak Vitoria-Gasteizko Udalaren komunikazio arduradunekin koordinazioan antolatu ziren.

Zenbait komunikabiderekin elkarrizketak, artikuluak, erreportajeak... adostu ziren ekintzen komunikazio zabalagoa lortze aldera. ALEA Arabako astekaria, Diario de Noticias de Alava, eta EITB taldea izan ziren komunikabide gertuenak 2018an.

Ohiko kolaboraziei dagokienez 2015ean abiatutako gehienak mantendu ziren. Horiek horrela, Hala Bedi Irratian hilero hilabeteko programazioaren berri emateko

espazioa izan zuen Oihanederrek Suelta la Olla irratsaioan. Honez gain, ALEA FM irratsaioan (ALEAk Radio Vitoria eta Hala Bedirako astero egiten duen saioa) kolaborazioa egin zen; hilean behin "Euskararen Oihana" izeneko atalean hilabeteko programazioaren berri eman zen eta egitarauko protagonistetako bat elkarrizketatu. Amaitzeko, 2018an EITB taldea osatzen duten irrati ezberdinekin (Euskadi Irratia, Radio Euskadi eta Radio Vitoria) kolaborazioak adostu eta elkarrizketa ugari egin ziren.

Publizitatea

Publizitateari dagokionez, aurreko urteetan ALEA, BERRIA, DNA eta EITB taldearekin lotutako hitzarmenak mantendu eta posible izan zenean hobetu egin ziren iragarkiak, bannerrak eta irrati kuñak txertatzeko. Aurreko urteetan bezala, 2018an ere, Gasteizko Jaietako *Badatoz* aldizkari berezian abuztuaren 7an antolatutako ekintzaren iragarkia txertatu zen. Azkenik, Udalaren Euskara Zerbitzuarekin koordinazioan, *Argia* astekariko hainbat iragarki-zutabetan Oihanederren inguruko informazioa eman zen.

Sustapena

Oihaneder Euskararen Etxea-Gasteizko Kafe Antzokia proiektuaren ezagutza eta atxikimendua sustatze aldera, jauregian bertan zein jauregitik kanpo, ekintza desberdinak egin ziren.

Oihanederren erabiltzaileekin interakzioa lantze aldera zozketa desberdinak antolatu ziren. Esate baterako *Gasteiztarrak Arraun The World* lehiaketaren testuinguruan, Garaiko landetxean bi pertsonentzako gau bat zozkatu zen erakusketa ikustera eta bidaien aurkezpenetara joandako pertsonen artean. Zenbait liburu eta kontzerturako sarrerak ere zozkatu ziren urtean zehar.

Aurreko urteetan bezala, bisita ezberdinak hartu ziren Euskararen Etxean, esate baterako, *Gasteiztxo* programako gazteena urte osoan zehar (15 bisita urte osoan zehar, 120 ikasle inguru).

Horrez gain, Olabide ikastolako ikasleen, Euskarabentura-ko gazteen eta Galiziako institutu bateko ikasleen bisitak ere izan genituen. Gu Koldo Mitxelena ikastetxeraino hurbilde ginen Oihaneder zer den azaltzera, eta amaitzeko Gazte Sortegiak sormen eskolak ezagutarazteko saioak egin ziren Gasteizko hiru ikastetxetan.

Bestalde hiriko jardunaldi eta ekimen desberdinetan hartu du parte LKEk Oihanederren izenean. Esaterako, Udalaren gazte planaren lan-saioan eta Haziak programan nahiz Gazte Sortzaileak beka deialdiaren epai-mahaietan.

Ezin aipatu gabe utzi **Euskaraldia**, Oihaneder Euskararen Etxea izan baitzen ekimen horren egoitza ofiziala Gasteizen. Ariketa sozial hori antolatzeko hamaika bilera, material banaketa, mahainguru, hitzaldi, dokumental eta beste hainbat jarduera antolatu ziren bertan, bai Euskaraldia batzorde ezberdinek zein hiriko eragile euskaltzale gehienek.

5.- 2017/18 IKASTURTEKO EBALUAZIOA

2018ko ekaina eta uztaila bitartean ikasturteko ebaluazioa egin zen. Ziklo guztiak banan banan baloratu, eta gainontzeko jardueren ebaluazioa burutu zen. Barne ebaluazioa egiteaz gain, euskalgintzako eta kulturgintzako eragile ezberdinekin bilerak egin ziren. Horrez gain, Gasteizko Udaleko eta Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuko ordezkariekin egindakoaren ebaluazioa burutu zen. Azkenik, gazte batzuekin ere ikasturtean programatutakoaren balorazioa egin zen (bilera hori beren ikuspegia eta interesak hobeto ezagutzeko ere baliatu zen).

Ebaluazio prozesu horren ostean jasotako ondorioak:

Programazioaren esparruan:

Jarduera kopurua → Altua izan izan zen. Mugatzeko erabakia hartu zen.

Helburuen arteko oreka → I. eta II. helburuak askoz hobeto landu behar dira, eta jarduera proposamen berriak egin. Ikasturte honetan bi jarduera berri jarriko dira martxan: *Gazte Sortegiak* eta *Batera*.

Programazioaren antolaketa → Orokorrean egoki ikusi zen. Zikloen formatua momentuz ondo ikusi zen. Etorkizunera begira beste formula batzuk bilatzea ez da baztertzen.

Elkarlana → Orokorrean ondo landu zen. %-k gora egin zuen. Proposamen asko iritsi ziren. Eragile batzuekin elkarlana hobetzeko beharra identifikatu zen.

Jardueren kalitatea → Oro har kalitatezko jarduerak egin ziren.

Jardueren morfologia → Erabiltzaileen parte hartze maila ez zen nahikoa izan. Beraz, jarduera parte hartzaile gehiago antolatzeko erabakia hartu zen.

Definizioaren esparruan:

Genero ikuspegia → Emakumeak nagusi izan ziren gure ekitaldietara etorritako publikoaren artean, aldiz jarduera-emaleen artean ez. Beti erreparatzen diogu kontu honi, halere, arreta gehiago jarri behar zaio eta emakumeen presentzia altuagoa izan behar da alor honetan.

Xede taldea → Publikoa hobeto aztertzeko eta segmentuak ondo zehazteko beharra identifikatu zen. Publiko berrietara iristeko saiakera egiten hasteko unea.

Komunikazioa →

- Sare sozialen erabilera hobetzeko erronka ezarri zen.
- Multimedia euskarrien erabilera areagotzea erabaki zen.
- Komunikazio kolaborazio berriak bilatzea eta hainbat komunikabideekin harremana estutzea adostu zen.
- Sustapena: Hobeto planifikatzeko saiakera.

6.- URTEKO LABURPENA

Laugarren urtea bete du Oihaneder Euskararen Etxearen jardunak Montehermoso jauregian (2015-2019) eta 550 jarduera inguru antolatu dira lau urte hauetan, ia 40.000 lagun bertara hurbildu. Batzuk dagoeneko ohiko parte-hartzaile bilakatu dira, eta beste hainbatek dagoeneko euskal kulturaren erreferentzia gunetzat dute gure egitasmoa. Esan daiteke azken urteko lanak ere sendotu egin duela proiektua, ez diola ahuldaderako biderik ireki.

2015a egitasmoa ezagutarazteko urtea izan zen: Gasteizko jendarteari asmoen eta helburuen berri ematearekin batera hilabetez hilabete jardueraz bete zen Oihaneder. Gasteizko eragile euskaltzale eta kulturzale ezberdinengana jo zen elkarlana proposatze aldera eta bide horrek eman zuen emaitzarik.

2016a urte oparoa izan zen ezbairik gabe. Alor ezberdinei erreparatuz gero, guztietan hobetu zela esan daiteke: hasieratik landutako helburuen arteko oreka hobea izan zen; abian jarritako jarduera ezberdinak ebaluatu eta bide berriak jorratu ziren; elkarlana sendotu eta zabaldu egin zen; proiektua ezagunagoa egin zen bai Gasteizen bai gainontzeko Euskal Herrietan; egitasmo berriak jarri ziren martxan eta kulturgile ezberdinekin jarri ginen harremanetan etorkizunean ere jarduerak garatzeko.

2017a aurreko bi urteetan landutakoak egonkortzeko eta hobetzeko urtea izan zen. Jarduera gehiago antolatu eta proposatu ziren ahulago zeuden helburu batzuk indartze aldera, *Gazte Sortegiak* sormen laborategiaren lanketa, kasu.

Eta azken urte hau, 2018.a, aurreko hiru urteetan jasotako esperientzia guztia hobetzeko eta fintzeko balio izan du. Ikusitako hutsuneak bete, gaizki egindakoak zuzendu eta proposamen berriei begirada ausartarekin so egiteko urtea izan da.

Berritzaileak izateko helburuz mugimendua da nagusi gure egunerokoan, soilik geldi dagoenari lotzen zaio goroldioa, eta gure harriak horrelakorik ez izaten saiatzen gara; barruko eta kanpoko ekarpenekin, batekin eta bestearekin bildu, eta beren iritziak entzunez.

Badago zeregina 2019rako: erronkei aurre egin, beti belarriak prest eta ahoak bizi, beti taldekideen iritziak kontuan hartuz eta ingurukoen aholkuak aintzat edukiz. Oihaneder Euskaren Etxeko lantaldea estu lotuko zaizkio langintza honi.